120702/1.

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco — Euskal Herriko Unibertsitatea

Bilbao Ekintza

**PRESTAKUNTZA JARDUERAK ETA DIBULGAZIO ZIENTIFIKORAKO JARDUERAK EGITEKO BILBAO EKINTZA E.P.E.L. ERAKUNDEAREN ETA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA**

*Erref.:* 120407/Col

Bilbon, 2012ko uztailaren 11an.

**HAUEK BILDU DIRA:**

Alde batetik, BILBAO EKINTZA E.P.E.L.-eko zuzendari nagusi Juan Félix Madariaga Brizuela, erakundearen izenean eta ordezkari gisa (IFZ: Q4800731D; helbidea: Ernesto Erkoreka plaza, zk.g., 48007 Bilbo).

Eta, bestetik, Euskal Herriko Unibertsitateko (aurrerantzean, UPV/EHU) Bizkaiko Campuseko errektoreorde Karmelo Garitaonandia Garnacho (IFZ: Q4818001B; helbidea: Sarriena auzoa, zk.g., 48940 Leioa).

Bi ordezkariek behar adinako gaitasun juridikoa aitortu diote elkarri, eta, bakoitzari dagokion erakundearen izenean, lankidetza hitzarmen hau sinatu dute. Helburu horretarako,

**ACUERDO DE COLABORACIÓN ENTRE BILBAO EKINTZA, E.P.E.L. Y LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA, PARA LA REALIZACIÓN DE ACTIVIDADES DE CARÁCTER FORMATIVO Y DE DIVULGACIÓN CIENTÍFICA**

*Ref.:* 120407/Col

En Bilbao, a 11 de julio de 2012

**REUNIDOS**

De una parte, D. Juan Félix Madariaga Brizuela, en nombre y representación de BILBAO EKINTZA, E.P.E.L., y en su calidad de Director General, con N.I.F. Q-4800731-D, y domicilio en Plaza Ernesto Erkoreka, s/n 48007 Bilbao.

Y de otra, el D.Carmelo Garitaonandia Garnacho, en su calidad de Vicerrector del Campus de Bizkaia de la Universidad del Pais Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (en adelante, UPV/EHU) y con C.I.F. Q4818001B, con domicilio en B° Sarriena s/n 48940 Leioa.

Ambos representantes, reconociéndose mutuamente capacidad jurídica suficiente, suscriben en nombre de las respectivas entidades el presente Acuerdo de Colaboración y, al efecto,

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Bilbao Ekintza

**HAU ADIERAZI DUTE:**

I.- BILBAO EKINTZA E.P.E.L. Bilborentzako ekonomia eta gizarte aberastasunaren sorrera sustatzen duen udal erakunde bat da. Horretarako, hiriak inbertsioak egiteko, sorkuntzarako eta enpresen hazkuntzarako leku gisa duen irudia indartzen du, enplegu aukerak hobetuz.

II.- UPV/EHU sektore eta diziplina anitzeko ikerketa erakunde bat da, eta irakaskuntza, ikerketa eta garapen zientifiko eta teknologikoko jarduerak egiten ditu.

III.- Aurrez ere Bilboko Udala, Lan Ekintza-Bilbao S.A. erakunde publikoaren bidez (une honetan, Bilbao Ekintza E.P.E.L. erakunde publikoaren barnean dago), lankidetza estuan aritu izan da Euskal Herriko Unibertsitatearen Lan Harremanen Unibertsitate Eskolarekin, lan merkatuaren, lan harremanen eta babes sozialaren arazoari buruzko ikerketak eta dibulgazio jarduerak gauzatuz.

IV.- UPV/EHUren Lan Harremanen Unibertsitate Eskolak lan merkatuaren, horren bilakaera joeren eta arlo horretako egungo eta etorkizuneko arazoen gaurkotasun gaiak ikertzen ditu.

**EXPONEN:**

I.- Que BILBAO EKINTZA, E.P.E.L. es una entidad municipal que promueve la generación de riqueza económica y social para Bilbao, potenciando la ciudad como destino atractivo a la inversión, a la creación y crecimiento de empresas, mejorando las oportunidades de acceso al empleo.

II.- Que la UPV/EHU es una Institución de formación e investigación de carácter interdisciplinar que desarrolla actividades de enseñanza, investigación y desarrollo científico y tecnológico.

III.- Que anteriormente, el Ayuntamiento de Bilbao, a través de la Sociedad Pública Lan Ekintza-Bilbao, S.A. integrada en este momento en la Entidad Pública Bilbao Ekintza, E.P.E.L. ha venido colaborando estrechamente con la Escuela Universitaria de Relaciones Laborales de la Universidad del País Vasco en la realización de estudios y actividades divulgativas sobre la problemática del mercado de trabajo, las relaciones laborales y la protección social.

IV.- Que la Escuela Universitaria de Relaciones Laborales de la UPV/EHU realiza su actividad investigadora en temas de actualidad del mercado laboral, de sus tendencias de evolución y de su problemática actual y futura.

V.- BILBAO EKINTZA E.P.E.L.-ek Euskal Herriko Unibertsitatearekiko harremanak sendotu nahi ditu; horrek prestakuntza jarduueretan eta lan arloko dibulgazio zientifikoko jardueretan lankidetzan aritzea barne hartzen du, izan ere, gai horiek beren lan arloei eragiten diete eta interesgarria da horien inguruko etorkizuneko jarduerak eta programak zehaztea. Jarduera horien artean, hauek aurki ditzakegu: Giza Baliabideen eta Enpleguaren Kudeaketa Masterra eta lan merkatuaren eta enplegu politiken gaurkotasun gaiei buruzko hainbat mintegitan eta jardunalditan elkarrekin lan egitea.

V.- Que BILBAO EKINTZA, E.P.E.L. está interesada en reforzar las relaciones con la Universidad del País Vasco, lo que incluye la colaboración en actividades de carácter formativo y de divulgación científica sobre temas laborales por afectar a materias de su competencia y sobre las que tiene interés prever actividades y programas para el futuro. Entre estas actividades se encuentran: el Master en Gestión de los Recursos Humanos y del Empleo y la colaboración en seminarios y jornadas sobre aspectos de actualidad del mercado de trabajo y las políticas de empleo.

Beraz, bi alderdiek azaldutako lankidetza esparruan gauzatzen ari diren ikerketak zabaltzeko interesa dutenez, hitzarmen hau formalizatu dute, klausula hauen arabera:

Por consiguiente, siendo de mutuo interés de las partes favorecer la difusión de las investigaciones que se están llevando a cabo en el marco de colaboración expuesto, formalizan el presente convenio con arreglo a las siguientes:

**KLAUSULAK**

**LEHENENGOA.- Helburua**

Hitzarmen honen helburua UPV/EHUren Lan Harremanen Unibertsitate Eskolaren eta BILBAO EKINTZA E.P.E.L.-en arteko lankidetza esparru bati bide ematea da, honako helburu nagusi hauekin: batetik, Giza Baliabideen eta Enpleguaren Kudeaketa Masterrean emandako prestakuntzarekin zerikusia duten jarduerak barne hartzen dituzten prestakuntza jarduerak eta ikerketaren berri

**CLÁUSULAS**

**PRIMERA.- Objeto**

Es objeto del presente convenio propiciar un marco de colaboración entre la Escuela Universitaria de Relaciones Laborales de UPV/EHU y BILBAO EKINTZA, E.P.E.L. con el fin de impulsar actividades formativas y divulgativas de la investigación que incluyen actividades relacionadas con la formación impartida en el Master en Gestión de los Recursos Humanos y del Empleo y la colaboración en

emateko jarduerak sustatzea; eta, bestetik, lan merkatuari eta enplegu politikei buruzko gaurkotasun gaiei buruzko mintegietan eta jardunaldietan lankidetzan aritzea.

seminarios y jornadas sobre aspectos de actualidad del mercado de trabajo y las políticas de empleo.

**BIGARRENA.- Ekarpenak**

BILBAO EKINTZA E.P.E.L., bere langileen bitartez, Euskal Herriko Unibertsitatearen etorkizuneko prestakuntza ekintzetan parte hartzeko prest egongo da. Jarduera horien artean daude, besteak beste: Giza Baliabideen eta Enpleguaren Kudeaketa Masterra, eta Unibertsitateak antolatutako lan merkatuaren eta enplegu politiken inguruko gaurkotasun gaiei buruzko beste mintegi eta jardunaldi batzuk. Lankidetza hau hitzarmen honen indarraldian zehaztuko da, bi erakundeen beharrak eta baliabideak kontuan hartuta.

UPV/EHUk, bere aldetik, jarduera osagarrien gastuak finantzatuko ditu, Lan Harremanen Unibertsitate Eskolaren funtsak eta beste erakunde batzuen diru-laguntzak eta ekarpenak erabilita.

**SEGUNDA.- Aportaciones**

BILBAO EKINTZA, E.P.E.L. a través de su personal, pone a disposición de la Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatea, su participación en futuras acciones de formación, entre las que se encuentran el Master en Gestión de los Recursos Humanos y del Empleo, así como otros seminarios y jornadas sobre aspectos de actualidad del mercado de trabajo y las políticas de empleo, que organice dicha institución. Esta colaboración se concretará a lo largo del plazo de duración del presente convenio teniendo en cuenta las necesidades y disponibilidad de ambas entidades.

La UPV/EHU, por su parte, financiará el coste de las otras actividades complementarias, con fondos propios de la Escuela Universitaria de Relaciones Laborales y otras subvenciones y aportaciones de otras entidades.

**HIRUGARRENA.- UPV/EHUren betebeharra**

UPV/EHUk honako konpromiso hauek hartuko ditu bere gain:

- Prestakuntza eta/edo dibulgazio jardueren diseinua eta edukia Lan Harremanen Unibertsitate Eskolaren kontura eta, zehazki,

**TERCERA.- Obligaciones de la UPV/EHU**

La UPV/EHU asume los siguientes compromisos:

- El diseño y contenido de las actividades formativas y/o divulgativas realizadas correrá a cargo de la Escuela Universitaria de

bertako zuzendaritza taldearen kontura gauzatuko dira.

- Horrez gain, UPV/EHUk bere gain hartuko ditu batera egindako jardueren hedapenarekin zerikusia duten lan teknikoak.

- BILBAO EKINTZA E.P.E.L.-ekin lankidetzan egiten dituen jarduera guztietan dagokion korporazio anagrama sartuko du.

Relaciones Laborales y, en concreto, de su equipo directivo.

- La UPV/EHU asumirá, asimismo, las labores técnicas relacionadas con la difusión de las actividades realizadas de manera conjunta.

- Incluir en todas las actividades que se realicen en colaboración con BILBAO EKINTZA, E.P.E.L., el correspondiente anagrama corporativo.

**LAUGARRENA.- Indarraldia**

Hitzarmen hau sinatzen den egunetan sartuko da indarrean, eta 2012ko abenduaren 31n amaituko da. Zuzenean luzatuko da urtebeteko alditan, bi alderdietako edozeinek gutxienez epemuga baino hilabete lehenago salatu ezean.

**CUARTA.- Vigencia**

El presente convenio entrará en vigor a la fecha de la firma y finalizará el 31 de diciembre de 2012, prorrogándose tácitamente por períodos de un año, salvo denuncia de cualquiera de las partes, con al menos 1 mes de antelación a la fecha de vencimiento.

**BOSGARRENA.- Hitzarmenaren Segimendu Batzordea**

Hitzarmen honen ildotik, Segimendu Batzorde bat sortu da. Batzorde horren helburua bi alderdien baterako segimendua egitea eta alderdien jarduketak koordinatzea izango da, beren eskumenen eta funtzioen esparruan, hitzartutako betebeharrak eta hitzarmen honen helburu nagusiak betetzeko eta sor daitezkeen hitzarmen honen interpretazio eta betetze arazoak konpontzeko helburuarekin.

Segimendu Batzordearen osaera paritarioa izango da. Lau pertsonak

**QUINTA.- Comisión de seguimiento del Convenio**

En el seno del presente Convenio se crea una Comisión de Seguimiento cuyo objeto será efectuar el seguimiento conjunto y coordinar las actuaciones de las partes, dentro del marco de sus respectivas competencias y funciones, en orden al cumplimiento de las obligaciones contraídas y objetivos generales del presente convenio, así como resolver los problemas de interpretación y cumplimiento de este convenio que puedan presentarse.

La composición de la Comisión de

osatuko dute: presidentea, idazkaria eta bi batzordekide.

- Presidentetza UPV/EHUren Lan Harremanen Unibertsitate Eskolako zuzendariaren eta BILBAO EKINTZA E.P.E.L.-en esku, edo horiek eskuordetutako pertsonen esku, egongo da; bi alderdietako ordezkariak sei hilero txandatuko dira kargua beren gain hartzeko.
- Batzordekide bat UPV/EHUkoa izango da.
- Beste batzordekidea BILBAO EKINTZA E.P.E.L.-ekoa izango da.
-

Batzordekideetako batek egingo ditu idazkari lanak.

Ohiko bilkurak hiru hilean behin egingo dira, eta, presidenteak beharrezkotzat jotzen duenean, ezohiko bilkurak egingo dira. Erabakiak bi alderdien adostasunez hartuko dira.

Segimendu Batzordearen araubide juridikoa Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean jasotzen diren kide anitzeko organoei buruzko arauei lotuko zaie eta administrazio berezitasunak Batzordeak berak ezarriko ditu.

Seguimiento tendrá carácter paritario. La formarán cuatro personas: la Presidenta o Presidente; el Secretario o Secretaria y dos vocales.

- La Presidencia estará a cargo del Director o Directora de la Escuela Universitaria de Relaciones Laborales de la UPV/EHU y el Presidente de BILBAO EKINTZA, E.P.E.L. o persona en quién delegue quienes se rotarán en el cargo cada seis meses.
- Un/a vocal pertenecerá a la UPV/EHU
- Un/a vocal pertenecerá a BILBAO EKINTZA, E.P.E.L.

Uno/a de los vocales ejercerá las funciones de Secretaria o Secretario,

La periodicidad de las reuniones será trimestral con carácter ordinario y cuando se considere necesario, a criterio de la Presidencia, con carácter extraordinario. Los acuerdos se tomarán por consenso entre las partes.

El régimen jurídico de la Comisión de Seguimiento se ajustará a las normas sobre órganos colegiados contenidas en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, y sus peculiaridades administrativas serán establecidas por la propia Comisión.

**SEIGARRENA.- Aplika daitekeen legeria**

Lankidetza hitzarmen hau administratiboa da. Aurrekoa gorabehera, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateginak onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren aplikazio eremutik kanpo dago, 4.1 artikuluko c) atalean ezarritakoaren arabera, hitzarmena gauzatzeko aipatutako aginduan adierazitako kontratuak sinatu behar ez badira eta, beren izaera dela medio, lege honi lotutako kontratutzat jotzen ez badira.

Adierazitakoari kalterik egin gabe, hitzarmen hau interpretatzerakoan sor litezkeen zalantzak argitu eta eztabaidak konpontze aldera, bertako klausuletan ezarritakoari helduko zaio eta, lagungarri gisa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legera eta aipatutako 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan jasotako printzipioetara, aplikagarri zaizkion gainerako administrazio arauetara eta zuzenbideko printzipio orokorretara ere joko da.

Sor litezkeen eztabaidak eta auziak konpontzeko, aldeak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira.

**SEXTA.- Legislación aplicable**

El presente convenio de colaboración tiene naturaleza administrativa. No obstante lo anterior, se encuentra excluido del ámbito de aplicación del Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, por virtud de lo dispuesto en su artículo 4.1.c), salvo que hubieran de suscribirse en ejecución del convenio, los contratos previstos en dicho precepto, y que por su naturaleza tenga la consideración de contratos sujetos a esta Ley.

Sin perjuicio de lo expuesto, para la interpretación de dudas y controversias que surjan en la interpretación de este convenio se estará a lo dispuesto en las cláusulas del mismo y, subsidiariamente, se acudirá a los principios establecidos en la Ley 30/1992,de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común así como en el citado Real Decreto Legislativo 3/2011, a las restantes normas administrativas que le sean de aplicación y a los principios generales del Derecho.

Para resolver las controversias y cuestiones litigiosas que puedan surgir, las partes se someten al Orden Jurisdiccional Contencioso-Administrativo.

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

Bilbao Ekintza

**ZAZPIGARRENA.- Hitzarmena baliogabetzea**

Hauek izango dira hitzarmena baliogabetzeko arrazoiak: bi alderdiak ados jartzea edo alderdietako batek hitzarmen honen bidez hartutako betebeharretako edozein haustea (beste alderdiak egiaztatu beharko du).

Kasu horietan, alderdiek batak besteari eman beharko diote hitzarmena amaitutzat emateko gertatutakoaren egiaztapenaren berri, amaiera hori indarrean jarri baino hilabete lehenago.

Eta, ados daudela adierazteko, alderdiek dokumentu honen bi ale sinatu dituzte, goiburuan adierazitako lekuan eta datan.

**SÉPTIMA.- Resolución**

Serán causas de resolución del convenio: el mutuo acuerdo o el incumplimiento de cualquiera de las obligaciones contraídas por el presente convenio por una de las partes acreditado por la otra.

En tales supuestos, las partes vendrán obligadas a comunicarse recíprocamente por escrito, la acreditación de la concurrencia de la causa invocada para dar extinguida la relación convencional con un mes a la fecha de su efectividad.

Y en prueba de conformidad, las partes intervinientes firman el presente documento

BILBAO EKINTZA E.P.E.L.-eko
zuzendari nagusia

Bilbao Ekintza

Sin./Fdo.: D. Juan Félix Madariaga
Brizuela

Euskal Herriko Unibertsitatearen
Bizkaiko Campuseko
erektoreordea

Sin./Fdo.: D. Carmelo
Garitaonandia Garnacho